

(euskara / castellano)

Kaixo lankideok.

UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak, Ikasleentzako Argibide Zerbitzuaren (IAZ) bidez, barne deialdi bat proposatzen die Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren programan parte hartu nahi duten unibertsitate ikastegiei, hitzarmen horretatik datozen jarduerak arautzeko.

Ikasleak unibertsitateara erakartzeko ekintzetako bat da hau (beste batzuk Zientziaren Astea, azaroan egingo dena, eta ohiko Ate Irekiak jardunaldia dira).

Fakultateko irakasle batzuk proposamen bat egiteko bildu ginen iaz, baina azkenean ez zuten gure proposamena onartu eta bertan behera geratu zen guztia. Fakultateko zuzendaritzarekin batera, aurten berriz ere proposamen bat egin nahiko genuke, iazkoarekin alderatuta zertxobait desberdina.

Deialdian ageri den moduan, batxilergoko 2. mailako ikasleei zuzendutako **praktika edo laborategi-saio batzuk** antolatu behar dira fakultateko laborategietan. Hala, ordu erdiko hitzalditxo baten ondoren (gure ikasketak saltzeko edo), 30-40 minutuko 3 edo 4 laborategi-saio proposatu nahi ditugu. Beraz, guztira, 3 orduko jardunaldi bat, segur asko martxoaren azkeneko astean edo, arratsalde batean. Institutuen eskarien arabera, agian zenbait egunetan errepikatu beharko genuke.

Horretarako ideia batzuk baditugu dagoeneko, baina segur asko zuk beste batzuk izango dituzu. **Beraz, ekimen honetan parte hartu nahi baduzu, edo ideien bat proposatu nahi baduzu, mesedez guregana jo, edo, bestela, etorri urriaren 20an, 11:30etan, LSIko mintegian egingo dugun bilerara.** Proposamena aurkezteko epea urriaren 24an bukatzen da.

Mila esker eta ondo izan.

Montse Maritxalar / Victoria Fernandez / Agustin Arruabarrena / Kepa Sarasola

Estimados compañeros y compañeras.

El vicerrectorado de alumnos de la UPV/EHU, a través del Servicio de Orientación Universitaria, ha efectuado una convocatoria interna a los centros universitarios que quieran participar en el programa de cooperación entre la Consejería de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco, para la organización de actividades que se derivan del mismo.

Se trata en este caso de una de las actividades que tienen como objetivo atraer alumnos a la universidad (como la Semana de la Ciencia, que se celebrará en noviembre, y la tradicional Jornada de Puertas Abiertas).

El curso pasado, un grupo de profesores de la facultad presentamos una propuesta a ese programa, pero finalmente no fue aceptada. En colaboración con la dirección del centro, este año queremos volver a presentar la propuesta, aunque un poco diferente a la del curso pasado.

Tal como explicita la convocatoria, se trata de realizar una serie de **prácticas en los laboratorios** del centro, dirigidas a alumnos de 2. curso de bachiller. La propuesta quiere incluir una pequeña charla de unos 30 minutos (para vender nuestros estudios), tras la cual se harían 3 o 4 prácticas sencillas de laboratorio, de unos 30-40 minutos cada una. En total sería una sesión de unas tres horas. Muy probablemente tendría lugar hacia la última semana de marzo, por la tarde. En función de las solicitudes desde los institutos, tal vez habría que repetirla algún otro día.

Tenemos algunas ideas sobre posibles prácticas a realizar, pero es muy probable que tú tengas algunas otras. **Por ello, si quieres participar en esta iniciativa o quieres proponernos alguna idea, ponte en contacto con nosotros o ven a la reunión que haremos el lunes 20 de octubre, a las 11:30, en el seminario de LSI.** El plazo de presentación de propuestas termina el día 24.

Gracias por anticipado.

Montse Maritxalar / Victoria Fernandez / Agustin Arruabarrena / Kepa Sarasola